

Janzteko zaintzari begirada berria: Budapesteko Emmi Pikler Haur Eskolako hezitzailearen behaketa sistematikoa

Tesiaren egilea: Maitane Belasko Txertudi

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila

Doktorego-programa: Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Berariazko Didaktikak

Jakintza-arloa: Hezkuntza

Tesi-zuzendaria: Elena Herrán Izagirre eta María Teresa Anguera Argilaga

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi honek askotan bigarren mailakotzat jotzen den eta ikusgarritasun gutxi duen zaintza baten hezkuntza-aukerak aztertzen ditu, hau da, janzte-zainketaren hezkuntza-aukerak.

Budapesteko (Hungaria) Emmi Pikler Haur Eskolak 0-3 urte bitarteko jarduera autonomoaren, jolaslibrearen eta kalitatezko zaintzen gainean eraikitako tradizio berezi batean du jatorria. Erabakigarritzat jotzen du hezitzaileen jokaera profesionalizatzea bere hezkuntza-kalitatea zaintzeko. Eguneroko errutinaren zati garrantzitsu bat da haurrak lankidetzan janzte, lorategira jolasera ateratzeko. Gorputzeko zaintza horrek denbora eta hauraren eta hezitzailearen arteko elkarreagin kopuru handia eskatzen ditu, bereziki bere *erreferentziak* hezitzailearekin egokitzen denean; eta modu autonomoan janzteko trebetasun espezifikoak eskuratzeko aukera eskaintzen du.

Kontuan hartuta Emmi Pikler Haur Eskolaren aldeko giza baldintzak, baldintza teknikoak eta antolaketa-baldintzak, eta gorputz-zainketa horren potentzialtasunarekiko konfiantza, sakon azertu da eskarmentudun hezitzaile piklertarraren jokabidea zaintza hori egiten ari den bitartean, eta esku egokietan ematen dituen benetako aukerei buruz hausnartu da.

Doktorego-tesia osatzen duten bost azterketak egiteko, Behaketa Metodologiara jo da, giza jokabidea analisi kuantitatibo sendoen bidez aztertzeko aukera ematen baitu. Janzte-zainketa sistematikoki beha daiteke; izan ere, funtsean, hezkuntza goiztiarreko (0-3) ikasgeletako errealitatean txertatutako zaintza baita, gogoeta sakona behar duena; prozedura aldetik, berriz, Behaketa Metodologiaren eskakizunak betetzen dituen ezaugarri uniformeak mugatzen eta kontuan hartzen dituen jarduera bat baita.

Lehenengo azterketak ikertu du ea egokia den ondorengo azterketetan erabiltzeko *ad hoc* sortutako behaketa-tresna. Bigarrenak frogatu du hezitzaileak koreografia espezifiko bati jarraitzen diola bere taldeko haurrak janzteko. Hirugarrenak identifikatu du zein den hezitzailearen harreman-izaerako jokabideen

multzoa, jantzi aurretik. Laugarrenak antzeman du zer harreman-jokabideren bidez babesten edo laguntzen dion bere kabuz jantzi nahi duen haurrari. Bosgarrenak, azkenik, hezitzaileak, amaitu duela jakinarazteko, zaintzaren amaieran ezartzen dituen harreman-izaerako jokabideen berri eman du.

Emaitzek erakutsi dute hezitzaile-talde piklertarrak asmatu duela bere hezkuntza-sistema eskola-garai berrietara ondo egokitzen, sehaska-etxean jatorri duen tradizioari uko egin gabe. Hezitzaileen esku-hartze bikain eta neurtuak haurraren ongizatea bermatzen duela eta janzteak kalitatezko zaintza izatea eragiten duela. Haurra lankide aktibotzat hartzen denez, bere janzeraren protagonista da, motibazio intrintsekoa du eta bere ekimenez erabakitzen du nola parte hartu eta nola eragin bere zaintzan. Horrek agerian uzten du hezitzaile piklertarren prestakuntzaren garrantzia. Esan daiteke berariaz egin ahal izan dela argia janztearen zaintzan.